

2017ko UZTAILA 20ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hamazazpiko uztailak hoge.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.
Julen Zabala Garcia.
Asier Aguirre Murguiondo.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Xabier Aranburu Altuna
Ion Mujika Perez

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpi t'erdia.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zortziak.

1.- Aurreko aktaren onespina.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2017-04-24 ohikoa aho batez onartzen da.

2.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta diru laguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK 1. HIRUHILABETEA	1.394,10
2	MAIDER ROMO: HIRIGINTZAKO AHOLKULARITZA	6.296,40
3	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	120,69
4	ALTZIBAR: LANDARAK	25,45
5	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	23,58
6	ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA APIRILA	1.251,20
7	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	36,30
8	KIDE ABOKATUAK: ZABORTIGIAREN AHOLKULARITZA	11.546,12
9	CORREOS: POSTA KUOTAK APIRILA	16,27
10	TOBERA MUSIKA ESKOLA: DIRULAGUNTZA	1.430,75
11	CHIP,S: ORDENAGAILUEN MANTENIMENTUA	355,74
12	OSTATU: EMANDAKO ZERBITZUAK	24,10
13	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	35,67
14	TELEFONIA EMPRESARIAL: ZENTRAILTAREN REBISIOA	142,78
15	GOIEKI: GIZARTE ARLOKO EKARPENA	237,36
16	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK 2. HIRUHILABETEA	1.394,10
17	GOIERRIKO HEDABIDEAK: OSTATUKO IRAGARKIA	275,88

18	IRAGARRI: OSTATUKO IRGARKIA	232,32
19	HITZARO ELKARTEA: LUDOTEKAKOZERBITZ 1. HIRU.	1.886,57
20	ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA MAIATZA	1.619,20
21	BERTSOLARI ALDIZKARIA: HARPIDETZA	29,00
22	CORREOS: POSTA KUOTAK MAIATZA	3,64
23	BIOK: MAHAIK	1.663,75
24	ARANTZAZU LIZARRALDE: ESKULANAK	850,10
25	IZALGO PILOTA ESKOLA: PILOTA TXAPELKETA 5 HERRI	271,48
26	XABIER ARANBURU: MATERIALAK	14,47
27	BULEGOAK: FOTOKOPIAK	183,25
28	EUSKOROT: ADHESIBOAK ZABOR ONTZITAN JAETEKO	96,56
29	ALZURI: BIDEOKAMARA	131,70
30	GOIERRIKO HEDABIDEAK: GOIBERRI ETA HITZA	387,2
31	EUSKAL EDITOREA: BERRIA HARPIDETZA	106,5
32	LUMAGORRI: JAIETAKO OILASKOAK	1.177,90
33	TROFEOS TAPELDUN: PLAKA	57,28
34	GOIERRI TELEBISTA: JAIETAKO PUBLIZITATEA	769,56
35	IRRIEN LAGUNAK: IKUSKIZUNA	137,5
36	SEGURA IRRATIA: JAIETAKO PUBLIZITATEA	157,3
37	TXERRI GORRI ELKARTEA: JAIETAKO GASTUAK	92,35
38	TELEFONIA EMPRESARIAL: ZENTRAILTAREN REBISIOA	250,47
39	ARTETXE: PLAZAKO SARRERA 3. ZERTIFIKAZIOA	23177,55
40	ELURRI: JAIETAKO EDALONTZIAK	1452
41	GRAFICAS USURBE: JAIETAKO KARTELA	284,35
42	SAGARDOGILEN ELKARTEA: SAGARDOA	720
43	OSTATU: JAIETAKO GASTUAK	1059,96
44	BIOK: GARBIKETARAKO MATERIALAK JAIK	115,91
45	BEBIDAS UGALDE: JAIETAKO TXAKOLINA	159,14
46	ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EKAINA	1619,2
47	ANTICIMEX: DESRATIZAZIOA	396,55
48	ANA ARANBURU: JAIETAKO GASTUAK	34,59
49	ERKUDEN AGIRRE: JAIETAKO GASTUAK	50,15
50	ZABADIS: JAIETAKO TXAKOLINA	154,46
51	GABIRI S.L.: AGIRIETAKO BIDEAREN KONPONKETA	12549,64
52	ZERKI: JAIETAKO EKINTZAK	561
53	TOLDOS AGUSTIN: JAIETAKO TOLDOA	93,17
54	ANTICIMEX: DESRATIZAZIOA 2016	390,31
55	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	77,22
56	JOSELU ANAIK: EMANALDIA	2299
57	CORREOS: POSTA KUOTAK MAIATZA	5,48
58	ARRATE IRRATIA: JAIETAKO PUBLIZITATEA	108,9

3.- 2016ko kontu orokorraren onarpena. Mutiloa Lantzen S.A.ren 2016ko kontuen onarpena.

2016rako aurrekontuaren kontu orokorra burutu ondoren eta Jendaurrean 15 egunetako epean jarrita, alegaziorik aurkeztu gabe, Udal Bilkura honek aho batez aipatutako kontu orokorraren onespena ematea erabakitzen du. Aldi berean Mutiloa Lantzen S.A. Udal enpresaren 2016eko kontuak onartzen dira.

4.- Bake epailea izendatzeko deialdia eta oinarriak.

Botere Judizialeko Lege Organikoaren 101 eta 102 artikuluetan eta bake epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduko 4 eta 5.1 artikuluetan bake epailei buruz ezarritakoaren arabera, Udalbatzarri dagokio udalerrri honetako bake epailea eta bere ordezkoa aukeratzea.

Hori dela eta, Osoko Udalbatza honek bake epailea eta ordezkoa aukeratzeko prozesuaren oinarriak eta deialdia egitea erabaki du. Honenbestez, hogeitai laneguneko epea zabalitzen da, dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesa izan eta araudiak jarritako baldintzak betetzen dituztenek Mutiloako Udaleko erregistroan eskaria aurkez dezaten.

AUKERAKETA PROZESUAREN OINARRIAK

Karguaren ezaugarriak:

— Lau urteko epealdirako izendapena.

Hautagaien baldintzak:

— 18 urte beteak izatea eta naziotasun espainiarra izatea.

— Karguaren funtzioak normaltasunez betetzea galeraz diezaiokeen ezintasun psikikorik edo fisikorik ez izatea.

— Doluzko delituengatik auziperatua ez izana, auziperatua eta absolbitua izan ez bada.

— Doluzko delituengatik kondenatua ez izana, birgaitua izan bada izan ezik.

— Euskararen ezagutzari dagokionez, gutxienez hizketarako gaitasuna izatea, Mutiloan %95ean euskaraz hitz egiten dela kontuan hartuta. Behar izanez gero udaleko euskara zerbitzuak egiaztatuko du baldintza hau betetzen dela.

— Kargu politikorik edota sindikalik ez izatea.

— Funtzionario edo Administrazio bateko langile ez izatea, ez eta bere ardurapeko organismo bateko langilea ere (irakaskuntzan edo ikerketan dihardutenak salbu).

— Abokatu edo Prokuradore lanetan ez aritzea.

— Aholkularitza Juridikoan ez jardutea, ordainduta zein ordaindu gabe.

— Mutiloako udalerrian bizitzea, ekainaren 7ko Bake Epaileen 3/1995 Araudiko 17. Artikuluan ezartzen denez.

— Aginte Judizialaren Oinarrizko Legearen 102. 302, 323 eta 389tik 397rako artikuluek arautzen duten bateraezintasun edo debekatze suposamenduetan ez egotea.

Eskarien aurkezpena:

Interesa duten pertsonak eskaera orria aurkeztu beharko dute Mutiloako Udaleko Erregistro Orokorrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen denetik 20 laneguneko epean. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz epea hurrengo lanegun arte luzatuko da.

Interesdunek agertu beharko dute eskaera orrian, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eskaerak aurkezteko epea ixteko egunean.

Organo eskuduna:

Mutiloako Udaleko Udalbatza Osoa.

5.- Ostatuako ustiakuntzaren esleipena.

Jarraian, Alkateak Mutiloako Ostatuaren Zerbitzu publikoaren ustiakuntzarako eskaintza bakarra aurkeztu dela adierazten du, Oiangü berri Junior S. Coopek aurkeztuta, hileroko 201 €ko (gei B.E.Za) kanona eskainiz.

2412 €ko behin betiko berma aurkeztu dutela kontuan hartuta eta Baldintza ekonomiko-administratiboen Pleguan azaltzen diren baldintza guztiak betetzen dituela kontutan hartuta, aho batez onartzen da enpresa honi Ostatuako ustiakuntza esleitzea. Aldi berea, kontratu hau sinatzeko Alkateari almena ematea onartzen da. Kontratu hau Irailaren 18an hasiko da.

Ostatuako egoerarekin jarraituz, Alkateak aipatzen du oraingo kudeatzaileak irailean utziko dutela eta itxi ondoren dauden ondasunen inbentarioa baloratuta egingo dugula. Proposamena da udalak ondasun horiek erostea eta kudeatzaile berriei uztea ostatuako ustiakuntza aurrera eramateko. Kudeatzaile berriekin kontratua bukatzen denean inbentarioan dauden ondasun guztiak berriro udalari utzi beharko dizkiote. Proposamen hau aho batez onartzen da.

6.- Langileen soldataren igoeraren onarpena (Eudeleko gomendioa).

Jarraian, Langileen soldata igoerarekin Eudelek bidalitako proposamenaren berri Osoko Bilkurari ematen zaio. Proposamena horrela dio:

“2017ko ekainaren 28an, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du 18. artikuluan. Bi: “2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”.

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Araztearen negoziatioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1EKO ORDAINSARI IGOERA 2017KO EKITALDIAN

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariak %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtarriletik aurrera izan ditzan ondorioak.”

Proposamen hau ikusita aho batez onartzen da.

7.- Udalek GFAk dituen legezko ordezkarien erroldara sarbidea edukitzeko eranskina sinatzeko Alkateari ahalmena eman.

Jarraian, D-7 eranskina “Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta” izenekoa sinatzeko modua zein zen, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoak lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren baitan. Eranskin horren sinadurak GFAk dituen legezko ordezkarien erroldara kontsultan sarbidea ahalbidetzeaz gain, ekainaren 30a baino lehen zuen eskura jarriko den jakinarazpen elektronikoaren aplikazio berriaren erabilera ere ahalbidetuko duela. Nabarmentzekoa da jakinarazpen elektronikoa erabiltzeko ezinbesteko izango dela eranskin hori sinatzea.

Hau guztia ikusita Osoko Bilkura honek aho batez onartu du D-7 eranskina “Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta” sinatzeko Alkate Jaunari ahalmena ematea.

8.- Erabilpen publikoko mendietan hobekuntzak.

Jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zerbitzura 18.000 € ematea aho batez onartzen da Udalerrri honetan dauden erabilpen publikoko mendietan inbertsioak edo hobekuntzak egiteko.

9.- Diru laguntzak.

Segidan diru laguntza hauek eskatzea aho batez onartzen da:

- Foru Aldundiko Gazteria Sailean, Mutiloako gazte plana finantzatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Biodibersitateko programaren barruan Peatzako proiektua aurrera eramateko.
- Eusko Jaurlaritzako Leader programaren barruan meategietako bideak egiteko.
- Foru Aldundiko artxiboak antolatzekeo programan gure artxiboren ordenazioa gaurkotzeko.
- Foru Aldundiko Kiroletako sailean frontoia konpontzeko.

10.- Haurreskolako leihok aldatzeko esleipena.

Haurreskolako leihok aldatzeko bi aurrekontu eskatu dira. Liderven eta Zubierreka enpresei. Lidervenek aurkeztutakoa da merkeena, beraz enpresa honi esleipen hau egitez zaio: Haurreskolako bost leihoen aldaketa 6.078,82 € tan (BEZa barne).

11.- Galde erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zortziak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.